

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Igeldoko Elurzuloa

Argi-indarra asmatu baino lehen Donostian izozkia udaran hartzen zen!

Hori nola da posible elektririk gabe? Ba, posible zen eta horretarako ziren elurzuloak edo hozkailu naturalak. Elurzuloa eraikuntza borobil bat da, mendiaren egian kokatua eta kupula batez estalia. Neguan, inguruko elurra arraztalu eta palekin bildu eta jaso egiten zen, elurzuloa eraman eta ondoren bertan gordetzen zelarik. Udaran bertatik atera, zakuetan sartu eta mando edo astoetan kakoletan jarri eta kalera eramaten zen saltzera. Beroarekin asko gutxitzen zen baina zerbait heltzen zen, horretarako gauez garraiatzen zelarik.

Igeldoko Elurzuloa Mendizorrotzeko ifarralde-

ko maldan dago, ez da elur asko egiten duen lekua, baina kontsumo lekuetatik nahikoa gertu zegoenez, Adarra ingurutik ( hemen ere badira elurzulo haundiak) ekartzen zituzten elur-garraioak baino kantitate handiagoa helduko zen saltokietara.



JOSU TELLABIDE

Ximon

## Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

### Tarrapatán

Leloa

San Sebastian,  
Tarrapatán,  
mucho ruido,  
mucho pan.

-Non da sagardoa?

-Ikatz kalean.

-Kalean?

-Ez, gizona ez!

kupelean.

1

Edan zagan batetik,  
edan zagan bestetik,  
ez, ez, hemendik.

Baina txotxetik

Viva la alegría!

Viva el buen humor!  
con sokamuturra  
y con el tambor.

2

San Sebastian goizean,  
bostak jo ez zuten,  
atabal, danbolinak,  
aditzen mituen,  
nere lagun guziak  
kalean ziraden.

Logale nintzan, baina  
Ez zidaten uzten.

Erdara eta euskara nahaste-borraste da. Eta garai hartako egunkarietan azaltzen denez, 1895. urtean San Sebastian jaiaren inguruko egunetan, kaleetan eta kantotetan nahi gabe ere entzuten zen abesti hau. Ez dakigu nori asmatua ezta nolako musika zuen ere. Baina donostiarren Kaskarin fama merezi samarra dela agirian uzten du.



**GUREA, KALITATEA!**